

Ur Mirakulutsua

HAINBESTE bero egiten duen egun horretan eta mendia zehar nekaturik eta izerditan zabiltzala zein ederra den iturriren batera heldu eta bertako ur fresku eta garbia ikusirik tragu bat botatzea! Iturria, egarri ez bazara ere, beti da jarkiezinako gonbidapena. Nik ba dut lagun bat, mendian zehar aurkitu dituen iturri guztietan ura edan duela pentsatzen duena. Eta iturri horiek asko izango dira honez gero, bai horixe!

Gainera, mundu guztiak daki mendiko ura askoz ere hobea dela, garbiagoa, ez hiriko ura bezain mistifikatua. Eta hori gutxi bada, ur dago iturririk -nik esango nuke herri bakoitzean bat gutxienez, eta nire herrian ere ba dago bat eta Makatz du izena- zeinen urek, bereziak izanik, berezotasun osasungarriak eduki eta eragin sendagarriak ekoizten bait dituzte. Eta hori argi dago beti izan delako horrela, eta gainera egia da.

Beno! Beharbada ez dago honen argi. Federakundearen planteatua genuen zalantza hau eta gai hau aztertzea komenigarria izango litzatekeela erabaki genuen. Eta honetan gaude gaur egun guztiz arduraturik. Egitamuk hiru lan-epaldi ditu: lehenik, mendian erabiltzen diren iturrien ahalik eta zentsu exhaustiboena egitea; bigarrenik, gehien erabiltzen diren iturrien ura analizatzea eta beronen edangarritasun-egoera ezagutzeta; eta azkenik, informazio, orientabide, eta bere kasuan jakabide-arloei buruzko neurri egokiak hartzea.

Lan-eritimoa desberdina suertatu da Lurralde bakoitzean eta Araba izan da aitzindaria, hirugarren epealdian murgildurik dagoelarik jadanik. 92. eta 93. urteetan, Zazpi Laguntaldearen iturri eta iturburuen zentsua burutu zen, 1.043 ur-puntu identifikatu zirelarik. Hauetarik garrantzitsuenak aukeratu ziren, erabiltzen, eskuragarritasun, posibilitate eta interesgarritasun hidrológicozko erizpideen arauera. Horrela 460 iturburu gertatu ziren aukeratuak, hauei laginak hartu eta 28

zehaztapedun test bat aplikatu zitzaielarik beren egoera, kalitatea eta ezaugarritasunak ezagutu ahal izateko. Laginen bigarren analisiaren ondoren %9,34ak soilik, hots, 34 iturri 1.000tik gora ziren iturriren artean, baiezta dute gai direla giza-kontsumorako. Gainerakoak kutsaturik daude, koliformeek eta estreptokokoei kutsaturik batez ere.

Beste Lurraldeetan prozesua atzeratuago dago (Bizkaia bigarren gunearen zentsua aurkeztu berri du eta Lurralde-Ikerketen Institutua, proiektua finantzatzen duena, zentsu osoaren amaiera egitea ari da; Gipuzkoa lana hasten ari da; Nafarroan egitea ari dira gaiak). Edonola, emaitza ez da izango Arabakoa baino hobea eta berehala planteatzen da zer nolako ekintzak burutu beharko liratekeen.

Jendearen mentalitatea aldatu beharra dago. Sinesmenen gainean jokatu behar dugu zeren fedea, indar izugarria bada ere, besterizkoak zailtasunez onartzen bait ditu eta jarrera peregrinotara gidatu bait gaitzake. Adibide bezala, gogoratzen ari naiz Gasteizko iturri herritar horren kasu bitxiak, zera: osasun-agintariek, uraren ezadangarritasunaz oharertzen zuten kartelak behin eta berriz kentzen zituztela ikusirik, azkenean delako iturri hori udal-hormikuntzaren sare publikora konektatu zuten. Hilabete asko pasatu da ordudanik eta gaur egun bertan ere jendeak, hango ura etxera eramateko, bonbiletz eta plastikozko ontziak egiten jarraitzen du zorieko iturria..... ur bera etxeko txorrotak zabalduz lortu ahal dutela konturatzeko.

Bueltatuko gara gai honetarako. Jarraituko dugu, Administrazio Publikoekin daramagun lan-idetzarik beste eredu bat delarik berau, iturri eta iturburuen zentsuak egiten, berriz karakterizazioa egitea eta seinaleztapenean parte hartuz. Bitartean aholku orokor bati kasu egitea ohitu beharko gara. Mendira joateko motxila egitean ontzia sartu behar da. Baina kontuz! askoz ere osasungarriagoa da etxeko txorrotak uraz betetzea. Ustekabe ezatseginak ebitatu ditzaizakegu.

El agua milagrosa

ESE día que hace tanto calor y vas por el monte sudando, cansado... ¡qué agradable es llegar a una fuente y echar un buen trago de agua fresquita y clara! Incluso aunque no tengas sed, la fuente es una invitación casi irresistible. Tengo un amigo, al que muchos de vosotros conocéis, que dice que cree que él ha bebido de todas las fuentes que ha encontrado por el monte. Y han podido ser muchísimas, a estas alturas.

Además todo el mundo sabe que el agua del monte es mucho mejor, más pura, menos mixtificada que el agua de la ciudad. E incluso hay fuentes —yo diría que por lo menos una en cada pueblo, en mi pueblo también la hay y se llama Makatz— en las que el agua es especial, tiene propiedades saludables y produce efectos curativos. Y eso está claro porque siempre ha sido así, y además es verdad.

¡Bueno! Quizá no esté tan claro. También en la Federación nos planteamos la duda y decidimos que era conveniente estudiar el tema. Y en ello estamos decididamente volcados. El plan tiene tres etapas de trabajo: en primer lugar, realizar un censo lo más exhaustivo posible de las fuentes que se utilizan en el monte; en segundo lugar, analizar el agua de las fuentes más frecuentadas y conocer sus condiciones de potabilidad; al final, tomar las medidas oportunas de información, orientación y en su caso de actuación.

El ritmo de trabajo ha sido diferente en cada Territorio y Alava ha sido pionera, de modo que ya está involucrada en la tercera fase. Durante los años 92 y 93 se realizó el censo de fuentes y manantiales de las siete Cuadrillas, identificándose un total de 1.043 puntos de agua. Se seleccionaron los más importantes de ellos, por criterios de utilización, accesibilidad, posibilidades e interés hidrogeológicos. Resultaron así 460 surgencias elegidas en las que se tomaron muestras, a las que se les

aplicó un test de 28 determinaciones para conocer su estado, calidad y características. Después del segundo análisis de muestras, sólo el 9,34%, es decir 345 fuentes sobre un total de más de 1.000 han demostrado ser aptas para el consumo humano. El resto están microbiológicamente contaminadas, sobre todo por coliformes y estreptococos.

En los otros territorios el proceso va más retrasado (Bizkaia acaba de presentar el censo de la segunda área y el Instituto de Estudios Territoriales, que lo financia, está estudiando la finalización del total del censo; Gipuzkoa está empezando el trabajo; en Navarra lo están estudiando). En cualquier caso, el resultado no va a ser mejor que en Alava e inmediatamente se plantea el dilema de qué actuaciones realizar.

Hay que cambiar la mentalidad de la gente. Hay que influir creencias porque la fe es una fuerza fenomenal pero que acepta con dificultad las discrepancias y conduce a actitudes peregrinas. Estoy recordando el caso chirene de esa popular fuente de Gasteiz en la que la autoridad sanitaria, harta ya de que se arrancasen los carteles en los que se avisaba de la no potabilidad del agua, terminó por conectar la fuente a la red pública de abastecimiento municipal. Han pasado muchos meses de eso y hoy es el día en el que la gente sigue haciendo cola con garrafones y recipientes de plástico para llevarse el agua de esa fuente... que es la misma que consiguen abriendo el grifo de casa.

Volveremos sobre este tema. Vamos a seguir, en otro buen ejemplo de colaboración con las Administraciones Públicas, haciendo los censos de fuentes y manantiales, estudiando su caracterización y participando en la señalización. Al hacer la mochila para ir al monte hay que meter la cantimplora. Pero ¡jojo! es mucho más sano meterla llena de agua del grifo. Nos podemos evitar sorpresas desagradables.

Txomin Uriarte

Iñurrategi anaiak

Del CHO OYU 8.201 m. (14-09-95)
al LHOTSE 8.516 m. (27-09-95)



RESUMEN

LA primera escena termina con Ong Chu, Félix y Alberto en la cumbre del Cho Oyu el 14 de setiembre. El sufrimiento ha merecido la pena.

Unos días después es el Campamento Base del Everest con los alaveses. Mucha nieve. Las alubias y el mus con Juanito Oiarzabal y Juan Vallejo hacen agradable la espera del buen tiempo.

Por fin, al pie de la pared. El 27 de setiembre a las 3 de la madrugada empieza el día grande. Frío. Trepano por la canal arriba hasta el

embudo de salida. Son las 8 y se divisa la punta.

A las 11 un repaso a la situación. Otra falsa cima, mucho frío y... miedo a tener que volver a visitar a Kiko Arregui en Zaragoza. Pero esta es la buena, la cima del Lhotse. Una serie de cimas famosas conocidas a nuestro alcance y un inmenso patio de 4.000 metros atrás.

En seguida nos movemos para resolver la preocupación de la bajada. Mucho mejor de lo esperado. Buena nieve y abajo los 600 metros de cuerda que han colocado los alaveses facilitan las cosas. Final feliz para todos. □

LHOTSE (8.516 m.)

Félix Iñurrategi

CHO Oyuko beheko kanpamendura bide luzea egin eta gero iritsi ginen. Jiri-tik Namche-rako bidea, beti bezala, patsadatsu, oinez egin eta handik Gokyora abiatu ginen, inguru hartako mendietan aklimatatzeko asmoz, eta han ia hamabost egun egin ondoren hartu genuen Kenjo lepoan barrena Cho Oyu aldera. Behar bezala aklimatuta ez geundenez, Nangpa La aldera jo genuen, era berean ingurua ezagutu eta mendiak zuen itxuraz ideia egiteko asmoz. Azkenik, eta ustez dena prest zegoela, eguraldi aproposa baino ez zitzaigun falta. Irailaren 9rako zen etortzekoa ilargi betea eta ordurarte eman ahala eman jardundako montzoiak atsedean hartuko zuen esperantzan ginen. Baita kunplitu ere!

Nangpa La-tik ilargi betearen argitan abiatu ginen eta eguna zabaldu orduko lehenengo maldetan gora gindoazen glaziarearen zatia atzera utzi eta gero. 6.400 metroan atsedena; egun ederraren eguzkia gozatzuz gorputzari poz apur bat eman eta handik aurrerakoari ekiteko prestatu ginen; motxilan zetozen botak eta granpoiak jantzi, krema igurtzi eta ur tragoxka baten laguntzaz elurretan sartu ginen. Aparteko arazorik gabeko bidea irudituz zitzaigun, hirurogei bat metroko tartean kontu handiz ibili baginen ere, baina goiz parteko erritmo bizia moteltzen hasi zen, gero eta elur bigunagoa aurkitu baikenuen, eta 7.000 metrora iristeko plana ezin izan genuen kunplitu. 6.800 metroan denda bertan jartzeko erabakia hartu genuen.

Handik gorakoa saio bakarrean egiteko asmoa genekarren (asmoa, gasa, janaria e.a.) baina 200 metro beherago gelditu izanak gailurra oso urruti ikusiarazi zigun.

Cho Oyuko gailurra

Goizeko ordubiak laurden gutxitan ekin genion gorakoari, hasiera sutsua emanez gainera, leku askotan belaun ingururainoko elurretan sartuagatik. Ilargiaren argitan, metroak aise irabazi genituen, baina poliki-poliki, pauso bakoitza astuntzen hasi zitzaigun eta ederki apaldu ziren lehenengo bi orduetako beroak.

Egungentzi inguruan igaro genuen lehenengo harrizko hormaren pasagunea eta bigarrena gainditu genuenerako, eguzkitan ginen. 7.800 metroan atsedena serioagoa egin genuen eta gailurra ia bertan zegoela pentsatuz abiatu ginen handik gora, baina igo eta igo eginagatik, beti zegoen gorago eramango gintuen bizkar borobilen bat. Nazka-nazka egin arte jarraitu genuen eta azkenik, ordu asko pasatu eta gero gailur nabarmenagoa jo genuen eta... jakina, hura ere ez zen benetakoa. Hori bai, aurreraxeago (ordu erdi ingurura) zegoen

beste hura bai, huraxe zen Cho Oyuko gailurra. Ong Chu eta biok, geure buruak horren nekatuta ikusirik, gailurra kaka jatea zuela esaten genion Albertori, eta horrek ezetz, ez zela horrenbeste eta



ahalegintxoia egin beharra genuela. Eta egin genuen ahalegin hori ere, berak bidea ireki eta guk ahal bezala jarraituta, noski.

Pozik jeitsi ginen oso, sufrututako guztiak benetan ere merezi izan baitzuten. Izan ere, mendi handi hauetan beti arin antean ibiltzen saiatu gara, baina sekula ere ez genuen uste izan Pirineoetan edo Al-



peetan mendiak igotzeko modura horrenbeste hurbilduko ginenik.

Lhotseko hormaren azpian

Lhotse aldera gorputza nekatuta baina animoso abiatu ginen. Berrito ere astebe-te montzoiairean ekin eta gero, arabar eta korearrekin batera Everesteko kanpamenduan ginen. Hori bai, bi sorpresa izan genituen: elurra bazter guztietan eta Lhotseko pareta sokarik jarri gabe. Hala ere, Juanitok prestatutako babarrunek eta arratsalde parteko mus saioek ideiak argitu zizkiguten eta mendi horretan ere momentu egokiari itxoin genion, patsadaz eta Maritxu Kajoirako itzuli ahal izateko aukera baztertuta. Beharko.



6.000 metrotan jartzen den ohiko kanpamendura igo genuen; egun oso bat atsedenerako utzi eta irailaren hogeita seiko goizean egin genuen gora.

Inoiz baino errespetu handiagoarekin hurbildu gara mendira. Goizeko bostak aldera jo dugu pareta barreneko rimaia. Pentsatutakoa baino ordubete beranduago atera gara kanpamendutik eta, hala ere, goizegi mugitu ote garen pentsatzen etorri gara. Ez da tautik ikusten, ilargi berritan gaude eta dagoen apurrak gordeta behar du. Bakoitzak bere ahalegintxo egin eta gero, rimaia gainean elkartu gara, sokari lotu eta lerroz lerro jarrita ekin diogu.

Uste ez bezala serak bazterreko bidea baino askoz ezkerreago joan gara, baldintza arruntetan edurjausiak etortzen diren lekutik, ohiko bidean izotz bizi-bizia dagoe-lako, eta lokarri finkorik ezean, elur bila jo dugu. Mendia ez dago elurrari eutsi ezinda

eta ez dugu uste goitik ezer eroriko denik.

Zuzen-zuzen "harri hori" deitutakoen azpiraino egin dugu eta handik eskumara; zeharkaldi luzean 150-200 metro igo eta Lhotseko hormaren gorengo seraketaraino iritsi gara eguerdi parterako.

Arabarrek 600 metro soka sartu omen dute gure arrastoa baino eskubirago, izotzetik hurbilago. Ez dira beherakoan txarrak izango. Estimatuko dizkiegu.

Arratsalde aldrebesa gaineratu zaigu; zerua ilundu eta elurrari ekin dio. Lainoak oso dira goikoak; gailurrrik gorenak estali dituzte eta arratsalde parteko zaparradaxoa baino egun batzuetarako txarra ekar dezaketela dirudi.

Albertori barruak berotu eta hoberik merezi genuela bota du: "txukuna geratuko dok pareta. Jeitsi hadi orain eguraldi kakatsua gainean dela; mekauean la... putzerroskilie!!!"

"baina poliki poliki, pauso bakoitza astuntzen hasi zitzaigun"

Gaua izar egin ez badu ere, apurren bat jaso du eta jeiki beharraz jardun dugu tarte batean; izan ere eztabaidagai gertatzen da beti sakuaren beroa utzi beharreko ordua, eta hara negoziaketaren mamia zertan izan den:

- Goizaldeko esperientzia: lauretan atera eta España ere ez dugu ikusi. Lhotse mendia aurkitu dugu Anboto urrintxo zegoelako.

- Hankak nekatuta ekarri ditugu. Ordubatean ateratzeko hamaiketarako bazterrak nahasten hasi beharra dago eta horri ezin zaio lo egitea esan; are gutxiago atsedena.

Egusentia kanalean

Hirurak aldera atera omen gara (egun guztia lauretan atera garela pentsatzen pasatu dut). Ong Chu argi gabe atera da eta Alberto gutxiarekin. Lehenbiziko metroetan glaziareko izotz biziak aurkitu dugu eta batzuek besteko ona egiteko hasiera kaxkara izan da. Gainera, jeitsiz ekin diogu bideari!

Ez dugu gauizar garbia eduki, triste ikusi dugu dendako ate izoztutik eta egun pobrea egin du ondoren.

Haizea atera du gora-bidea hartu eta berehala, elur hautsa harrotu eta hotza gordinduz. Beroak nekartzan hankak, baina freskatzan hasi zaizkit eta Alberto elur gainean kukildurik gelditu da, eskuak badijoazkiola esanez. Nire eskularru beroak utzi dizkiot eta egusentira artekoa gora bidean eustea jarri dut helburu, Albertok eskuak ez ezik animoa ere izotzua baitu.

Egusentia hotzean jo dugu kanal handiaren barrenaldea eta Ong Chu eta Alberto gogotsu hasi dira tiraka. Kanalerako sarrera garbirik ez ikusteak sortu ditu zalantzak, baina bertara joan eta ikusi bezalakorik ez dago bide zuzena aurkitzeko. Alberto joan da hainbeste zalantza sortu dizkigun horma tentearen azpiraino, ezkeraldera metro batzuk egin eta goitik beherako ertz baten barrera gaindituz enbutu handi batean atera du burua. Gorputzari buelta erdi eman eta hitzik esan barik pioletarekin egin didan keinua nahikoa izan da bide onean goazela adierazteko, une horretantxe, gero horrela baieztatu dit, garbi ikusi baitu tontorrek bidea. Hortik aurrera indarrei eustea baino ez da izan kontua. Goizeko zortziak inguruan izan da hori.

Enbutuaren barrenaldetik punta zorrotz bat ikusi dugu goiko aldean, eta haraxe heltzeko egin ditut kalkulu guztiak (denbora, atsedenaldiak, indarra, buruan antolatu beharreko pelikularen iraupena,...).

Hankak aspaldi gogortu zaizkit; izan ere, oso noizean behin etorri zait gogora bizirik ote zeuden errebisioa egitea. Eguzki apur bat hartuko lukete, baita nik neuk ere!!!

Hori bai, sustoa Albertok eman digu, Zaragozatik pasatu beharko duela deplauki botata. Kontua da beti edo gehienez oso tarte handiarekin ibiltzen ohitua dagoela, eta hotza botinaren ingurura arrimatu zaionerako kakalarritu dela (hala ere gero serio-serio esan digu kristoren hotza pasatu duela!).

Gailurrera eramango gaituen korredore nagusiak ez du aparteko misteriorik: zabala da, erdialdean zertxobait estutzen bada ere, ez da oso tentea, nahiz eta erdialdeko estu-une horretan gainerakoan baino aldapa handixeagoa izan. Eutsi egin behar zaio, batipat gu bezala behe xamarretik etorri gero (azkenengo kanpamendua 7.600 metroan).

Behetik ikusi dugun tontortxoaren azpira iritsi garenean hartu dugu walkia lehenengo aldiz. Beherago ere deitezokotan egon gara, baina goizegi zelako edo behin mar-txa hartuta gelditzea gogorra delako, gelditu garenean haize katramilatsuak pakean utzi ez gaituelako..., kontua da goizeko hamaikak jo dizkigutela lehenengo bizi-seinalea eman orduko. Fernaldo gizarajoa, inongo kulparik gabe horrenbeste sufritzen egon beharra ere!

Azken tontorra

Hamaiketako partea ondorengoa izan da:

- Tontorretik gertu izan behar dugula, gainean daukaguna ez bada (ordubete inguru) eskubialdean ikusten dugun ertz elurtuak emango duela tontorrera (2-3 orduko estimazioa)

- Oso nekatuta gaudela (hori ez da nobedadea)

- Hankak batipat, oso hotzak ditugula, gauza okerren bat pentsatzeko bestean.

- Ustegabeko handirik ezean, hurrengo deia gailurretik egingo dugula.

Pauso gutxi batzuk gehiago aurreratu bezain laster ikusi dugu benetako tontorra; inongo zalantzarik gabe esan dugu "horixe da", eta urruti ikusi badugu ere, ordubete inguruan egin dugu bertarainoko bidea.

Albertok tiratu du ia atzera begiratu ere egin barik; zeharkako ezker eskuin batzuen ondoren azken piramidearen oinarriaren ezkeraldera jo du, eta handik eskuinerako joeraz azken 60 metro tente



Argaskiak: Inurategi analiak



tenteak irabazi ditu, gailurreraino iristeko.

30 metro atzerago, sokaren beste muturrean, arnasa

lasaiago hartzen saiatu naiz Albertoren erri-tmoari eutsi beharrik izan ez dudanean. Bien bitartean, mendiaren gailur zorrotzari puska bat kendurik lekua egiten saiatu da. Pauso batzuk gehiago eman ditut, hamabost metro inguru, Ong Chu ere azken metroak egitera animatu denean. Neure txanda izan da hurrena eta pega-pega eginik, arnasa hartzeko ere lekurik gabe, elkarri bostekoa eman diogu Lhotseko tontor zorrotzean.

Gure inguruan ikuspegiak eta jeitsiera

Beheko bailaran eta inguruko tontor zorrotzen hegaletan laino txuri eta grisak ikusi ditugu, bukaerarik gabeko ertz zorrotzak, elurrak borobilduak, ezkerretara Eve-